

# ONGi

Gure proiektuan aplikazioak ematen duen zerbitzua da garrantzitsuena, beraz, gure proiektua abian jarri ahal izateko, egin beharko genukeen lehenengo gauza aplikazioaren antolaketa ondo prestatzea izango zen. Aplikazioaren antolaketa edukita aplikazioa garatu eta argitaratu beharko genuke. Azkenik aplikazioa ezaguna izan ahal izateko publizitatea egin beharko genuke.

Gure ustez aplikazio garatzea jarduerarik garrantzitsena izango litzateke, hori eginda izan ondoren publizitate ugari egin beharko genuke. Kontuan izan behar dugu gure enpresaren oinarria ONGi aplikazio dela, hortaz, deskargak beharko ditugu aplikazioa ezaguna izan ahal izateko horretarako leku desberdinetan egin beharko genuke publizitatea. Adibidez egunkarietan egiten badugu publizitatea pertsona helduak direnak gure enpresaren existentzia ezagutuko dute, beste alde batetik, sare sozialetan aritzen bagara gazteagoak direnak ezagutuko gaitzke. Bestalde iragarki-karteletan ere egin beharko genuke publizitatea kaletik ikus ahal izateko.

Azkenik gure enpresak beste zerbitzu bat eskaintzen du, zerbitzu hau bezeroei beraien arazoekin lagundu ahal izatea da, horretarako Gmail bat sortu beharko genuke eta telefono zenbaki bat eduki. Bezeroek gurekin kontaktuan jartzeko bi modu hauek edukiko genituen beraien hautatzeko ze modurekin erosoago sentitzen diren.

Bizpahiru lerrotan esan genezake gure proiektua aurrera eramateko egin beharko genituen lehendabiziko gauzak hurrengoak direla: aplikazioa antolatu eta ondo garatu, argitaratu eta aplikazioa ezaguna izateko publizitate ugari egin. Azkenik, bezeroek gurekin kontaktuan jartzeko moduak eskaini behar ditugu. Adibidez, gure korreoa ([ongi.app@gmail.com](mailto:ongi.app@gmail.com)) eta telefono zenbakia.

